



Etzi, Ibarako produktuak ezagutzeko azoka

GOIZA ▶ Igande goiz osoan zehar
egingo da herriko kaleetan zehar
'Bertakoa, ezagutzekoa' izenez

GAIK ▶ Nekazaritza, abeltzaintza,
artisautza, kirola eta ohiturak
izango dira ikusgai ▶ 6



Gorrekin komunikatzeko, zeinuen hizkuntza ikastaroa

TOLOSA ▶ Gaingitzen —eskualdeko pertsona gorren elkarteak— zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu du urriaren 4tik aurrer Inmaculada ikastetxean aurreko urteetan bezala. Hizkuntz honek pertsona gorrekin komunikatzeko aukera ematen du. Hiru mailetan banatzen dute ikastekoa eta hiru mailak egin dituen Leire

Mendia tolosarraren iritiz «zailena hitz bakoitzaren zeinuak buruz ikastea eta naturala izatea da». Hala ere, «pertsona gorrekin komunikatzeko gai izateak» asko betetzen duela dio ikasle ohiak. Argazkian, ikasle batzuk klase praktikoko batean, Altzoko erraldoiaren oroitarrian. HITZA ▶ 3

TOLOSA ▶

Pintura ikasleen lanak Aranburun

May Colmeneroren
ikasleenak dira;
bihar arte ikusgai ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

Trinketeko Munduko Kopan goi mailan

Mendizabal-Urkiza
irabazle izan dira ▶ 2

LEITZA ▶

Hainbat eskulan ikastaroak hastear ▶ 7



© 943 11 98 28 • Amaro zuzoa • TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREKIN elkarlanean

Gure harpidedunen artean IRUÑA
JATETXEAk oparitutako 2 lagunentzako
afari eder bat zozketatuko dugu.
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ERAKUSKETA ▶

Oparia eta esker ona ikasle guztiei

May Colmenero pintura eskolako lanak ikusteko azken aukera Aranburun

LEIRE MONTES

Hogeita bost urte bete dira aurtan May Colmenero margolariak pintura eta marrazki eskolak ematen hasi zela. Tolosarraren ibilbidea omentzeko eta urte hauetan guztietan egindako lanagatik esker ona adierazteko, eskolako ikasleen lanekin erakusketa paratu dute Aranburu Jauregian.

Hasiera batean, urriaren 9a arte zen egotekoa koadro bilduma Aranburun. Baina «azkeneko ekaitzek sortu dituzten hezetan eta ur jarioak direla eta», erakusketa aretoak ixtea eta konpontzea erabaki du Udalak. Gauzak horrela, bihar kenduko dituzte margolanak; gaur eta bihar dira, beraz, Colmeneroren ikasleen obrak ikusteko azken egunak. Miren Gonzalezen *Puzzleak* erakusketa ere kendu egingo dute larunbatean, baina txukuntze lanak amaitu eta gero berriro itzuliko da Aranburura.

Ikasleek egindako 125 koadro inguru biltzen ditu Colmeneroren eskolako erakusketak. Irakaslearen 8 lan ere ikus daitezke bertan. Baina protagonismoa ikasleena dela dio behin eta berriro: «Oparia egin nahi nien nire ikasleei, beren lanak ikusgai jartzeko aukera eman nahi nien artistak txikiak; eta, era berean, haien senitatekoak eta jendea orohar, eskolan egiten duguna ezagutzeko parada eskaini. Ikasleak dira benetako protagonista, eta erakusketaren partaide sentitzea nahi dut». Haiek dira, hain zuzen ere, erakusketa zaintzeaz arduratzen direnak, txandak; katalogoan ere beren inpresioak eta iritziak idatzi dituzte, eta erakusketa antolatzen buru-belarri aritu dira, irakaslearekin batera.

5 eta 18 urte bitarteko ikasleak joaten dira May Colmenero pintura eskolara. Klasetan landutako teknika guztiak aurkiko ditu ikusleak Aranburu Jauregiko erakusketan: olioak, akuarelak, pastelak, itzalak, zurezko margoekin egindako lanak, teknika mixtokoak... Eskolako gela bera «erakusketa iraukorra» dela dio margolariak:

ANIZTASUNA

«Bi koadro berdinek ez dago; norberak bere paleta du, eta horretan datza pinturaren xarmak»

HARREMANA

«Ez da irakaslearen eta ikasleen artekoa, lagun artekoa baizik; elkarrengandik asko ikasten dugu»

«Nire koadroak eta ikasleenak daude txoko denetan, teknika guztietakoak. Artez inguratuta egotea nahi dut gelan. Errazago egiten baita lan horrela».

Denei «gauza bera» irakasten dien arren, «bi koadro berdinek ez» dagoela dio: «Nik azalpen berak ematen dizkiot bati zein besteari. Baina bakoitzak bere erara interpretatzen ditu. Norberak bere paleta du. Eta horretan datza pinturaren xarmak».

Ikusmin handia


May Colmeneroren pintura eskolakoek Tolosan jartzen duten hirugarren erakusketa da hauxe. Ikusmin handia piztu duela dio irakasleak, eta «pozez zorrotzen» ageri da jendearen erantzunarekin: «Inoiz ez da hainbeste jende elkartu Aranburu Jauregiko erakusketan baten inaugurazioan, esan didate behin eta berriro. Hainbeste ikasle, ikasle ohi, senide, lagun eta abar ikustean erabat hunkitu egin nintzen...».

Bere ikasleak «(a-ia seme-alabatza) jotzen ditu Colmenerok —(nire umeak) deitzen die guztiei, haur zein gaztetxo izan—; eta denon arteko harremana ezin hobea dela dio: «Harremana ez da irakaslearen eta ikasleen artekoa, lagun artekoa baizik. Elkarrengandik asko ikasten dugu denok».

Artista gazte hauen lanak ikusi nahi dituenak Aranburun du hitzordua, gaur eta bihar, 17:30etik 20:30era.



Teknika ugari. 5 eta 18 urte bitarteko ikasleek hartu dute parte erakusketan; era guztietako teknikak jorratu dituzte: olioak, akuarelak, pastelak, itzalak, zurezko margoak, teknika mistoak... LEIRE MONTES



Arrakasta. Inaugurazio egunean ezezik, egunero erakusketak jende asko erakarri duela dio Colmenerok; ikasleen lanekin Tolosan egin duen hirugarren erakusketa da Aranburun ikusgai dagoena. LEIRE MONTES



Lehenago amaitzea. Hasiera batean urriaren 9a arte zen egotekoa erakusketa Aranburun; baina hezetan eta ur jarioek aretoetan sortu dituzte arazoak direla medio, bihar amaituko da. LEIRE MONTES

IKASTAROA ▶

Zeinuen hizkuntza ikastaroa

Urriaren 4ean hasiko da Inmaculada ikastetxean, Gainditzen elkarteak antolatua



Gainditzen elkarteak urte batzuk daramatza zeinu ikastaroak antolatzen; argazkian, klase bat. LEIRE MONTES

MADDI SOROA

Tolosaldea eta Goierriko Pertsona Gorren Elkarteak, zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatua du ikasturte berrirako. Klaseak, urriaren 4ean hasi, eta datorren urteko ekainaren lehenengo astean amaituko dira. Astean bi egunetan izan-

go dira eskolak, bakoitzak bi orduko iraupena izango duelarik. Egunak, astearte eta osteguna dira, ordutegirako, berriz, bi aukera daude: 16:45etik 18:45era, edo 19:00etatik 21:00etara. Ikasturtean zehar, Kondeko Aldapan dagoen Inmaculada ikastetxea izango da egoitza nagusia. Argibide

gehiago nahi izanez gero, deitu 943 67 36 29 telefonora 8:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:00etara.

Esprebitate nagusi

Eskoletarako sistemari dagokionez, ez dago metodo jakirik, hau da, ez dago libururik

hatz bat, hiztegiren bat... Irakaslearen arabera —zeinuen hizkuntzako irakasleak gorra dira— antolatzen dira eskolak, beti ere, esprebitate delarik komunikatzeko eta irakasteko erabiltzen duten sistema. Ikasturtean zehar, gai ezberdinak —oporrak, eskola, etxea...— jorratuz, pixkanaka-pixkanaka ikasleen hiztegi ezagutza handitzen joaten da.

Tarteka, gramatika apur bat, galderak nola egiten diren esaterako, edota irakaslearen apunteak ikasten dituzte ikasleek. Orokorrean, ordea, sistema bera errepikatzen da behin eta berrin, irakasleak hitz berri bakoitzeko dagokion zeinua egiten du eta ikasleak zeinu berri hori errepikatu ahal ikasten du.

Leire Mendiak, zeinuen hizkuntzako hiru mailak egin dituen ikasleak, adierazi duenez «hitz bakoitzaren zeinua buruz ikastea eta naturala izatea da zailena».

Zeinuen hizkuntza osoa hiru mailatan banatzen da, behin hiru mailak egin ondoren, Madrilgo CNSE ziurtagiria eman-goa zaie ikasleei.

LEIRE MENDIA ▶ ZEINUEN HIZKUNTZAKO IKASLE OHIA

«Asko betetzen nau gorra den pertsona batekin komunikatzeko gai naizela ikusteak»

Leire Mendiak ia amaitu zituen zeinuen hizkuntzako hiru mailak. Orain, tarteka Tolosako lagun gorrekin elkartzen da ikasitakoa praktikatzeko eta beste batzuetan bere irakasle izandakoari laguntzen dio interprete lanetan.

Zerk bultzatu zintuen zeinuen hizkuntza ikastera?

Betidanik egin izan zait gauza kuriozoso gorra beraien artean komunikatzea, beti erakarri izan nauen gauza izan da. Aspalditik neukan gogoa zeinuen hizkuntza ikasteko, baina Donostiara joan behar nuen, alferkeriagatik edo ez nintzen animatu. Gero Tolosan ikusi nuen aukera zegoela ikastaroa egiteko, bi aldiz pentsatu gabe eman nuen izena.

Nolako esperientzia izan da? Oso esperientzia ona eta aberasgarria izan da. Oso gustura joaten nintzen klasea, oso ongi pasatzen nuen. Gainera,

eskoletatik kanpo jarduera ezberdinak antolatzen genituen, gorra diren gazteekin eta lagunarteko giroa genuen guztion artean.

Zer atera duzu esperientzia honetatik?

Pertsonalki asko atera dut ikastaro eta esperientzia honetatik. Asko betetzen nau gorra den pertsona batekin komunikatzeko gai naizela ikusteak. Beti iruditu izan zait eskurazina den eremua dela gorrena eta orain ni gai naiz inkomunikazio horretako partaide izateko. Gainera konturatzaren zara pertsona gorrek munduaren beste ikuspegi bat dutela eta beraiekin ideiak, iritziak eta pentsamenduak elkartrukatzeko oso aberasgarria izan da niretzat.

Nola ikusten duzu Gizartearen jarrera gorren aurrean? Eguneroko bizitzan traba asko dituztela uste dut. Tolosan



LAGUNTZA

«Ezintasun fisikoak dituztenei bezala, gorrentzako ere erraztasunak jartzeko eskatzen dute gorrek»

egin zuten Sentsibilizazio Astearen ikusi ahal izan zen bezala, arazo asko dituzte eguneroko egoeren aurrean, hala nola, etxeetako txirrin automatikoekin, autoa hondatuta errepide bazterrean, igogailuan harra-patuta geratzea... Planteatzen ez dituzun gauzak dira, baina, pertsona gorrentzako oso arazo larriak dira.

Zer egin dezake gizarteak pertsona gorren alde?

Beraiei entzun behar zaie, zer eskatzen duten galdetu eta gero, ahal den neurrian. Azken finean, eskatzen dituzten gauzak ez dira zailak edota garestiak, eta aldiz, beraiei beharrezkoak dituzte. Pertsona gorrek salatzen dutena da, ezintasun fisikoak dituztenei laguntzak ezartzen zaizkien bezala gorrentzako ere erraztasunak jartzeko. Pertsona gorrek gehien eskatzen dutena interpreteak dira.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
 - ▶ San Esteban: 00 68 00
 - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 - ▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 - ▶ DYA: 67 25 36
 - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- Villabona.** Anbul.: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobus: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldirakaria: 30 07 32
- ▶ Tipi Itapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Santamaria. Nafarroa, 2, (Tolosa). 943 65 46 10.
- Larraia M.I. Elbarren, 95 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18. tolosaldean_publi@tolosaldeko-hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko-hitza.info
- Villabona-Aitz.** 687 41 00 22. villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
- Anoeta.** 687 41 00 22 anoeta@tolosaldeko-hitza.info
- Ibarraldea.** 687 41 00 32. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
- Leitza.** 687 41 01 18. leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Tolosa. Neska behar da Tolosan bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa.: 943 01 62 08.

SALGAI
Autoa. Hyundai Lantra salgai. Sei urte. 686 87 04 07.

KIROLA ▶

Trinketeko Munduko Kopan lehen postuak Tolosaldekoentzat

Maider Mendizabal eta Itsaso Urkiza paletako Munduko Kopa eskuartean zutela egin zuten etxera Baionatik

GARAZI AZKUE

Trinketeen Munduko Kopa jokatu zen hilaren hasieran Baionako Moderno trinketeen. Tolosaldeko hainbat pilotari izan zen bertan lehen postua lortzeko asmotan.

Pilotari horien artean ziren Maider Mendizabal anoetarra eta Itsaso Urkiza berastegiarra; bikoteak Munduko Kopa altxa zuen partidaren amaieran. Arruti eta Goikoetxea zizurkildarrak eskuz aritu ziren txapelketa berean. Banakakoan, Imanol Arrutik 4. postua lortu zuen; eskuz binakakoan berriz, hirugarren postua lortu zuen Goikoetxeak. Xarean, Irura izan zen protagonistetako bat, Joxi Lopetegik eta David Vinuesa bigarren postua lortu ostean.

Urrearekin etxeratuta, aurkako bi frantsesak «aspaldiko arerioak» zituztela aipatu zuen Maider Mendizabalek. 2002 urtean ere bikote beraren aurka jokatu zuten Munduko Kopa eta finalean galdu zuten. Irabazi bazuten ere larri ibili zirela aitortu du Mendizabalek, «24 eta 17 galtzen genbiltzala, 25era iritsi ginen bi bikoteak berdinduta, hortik aurrera berdinduta ibili ginen partida osoan». Azkenean, 30 eta 29 irabaztea lortu zuen bikoteak. «Oso final gogorra izan zen, oso parekatuta geunden bi bikoteak». Hurrengo hitzordua 2006an Munduko Kopan izango dute, Mexikon.

Hala ere, kanpoan begira daudenez okerrago pasatzen dutela aitortu du anoetarrak, «azken finean zu barruan joka-



Maider Mendizabal 2002 urteko Munduko Kopan. HITZA



David Vinuesa eta Joxi Lopetegik irurarrak. HITZA

tzen zaude, baina kanpoan begira daudenez ezin dute ezer egin eta hori oso gogorra da». Mendizabalen esanetan trinketearen itsurak ere errespetu handia ematen du hasieran, «jende asko zegoen finaleko partida ikusten, gainera oso trinkete berezia da, kristalezkoa, eta horrek errespetu handia ematen zuen hasieran».

Teilatua izan ezik, beste paleta guztiak kristalezkoak zi-

ren eta «jendea ikusten zenuen alde guztietan, 1.000 lagunetik gora egongo ziren partidak ikusten». Dena dela, gustuko du anoetarrak ikusleak egotea, «gustagarria da jendea trinketeen ikustea. Gainera, trinketeen oso jokamolde politak eta ikusgarriak ikusten dira».

Orokorrean oso esperientzia polita eta baikorra izan dela aitortu du Maider Mendizabal anoetarrak.

IRURA ▶ JAIK

San Migelak gaur iluntzean hasiko dira

Herensugeak, suziariak, pregoiak eta zanpantzarrek emango diete hasiera festei



Gaur hasiko dira Irurako San Migel jaiak. HITZA

G. AZKUE

Aurtengo San Migelak iritsi dira. Gaurtik aurrera, eta urriaren 3a bitarte, adin guztietako herritarrek izango dute festaz gozatzeko aukera.

Festei, herensugeak, erraldoiek, suziariak, buruhandiek eta zanpantzarrek emango diete ongietorria. Marimi Ugalde, Irurako alkatearen esanetan, «gaurko egunean barrikotea izaten da azpimarratu beharreko ekintza, oso herrikoia da eta azken urte askotan egin da herrian».

Gainerako egunei dagokienez, badira berrikuntzak aurtengo egitarauan; Poloniako Polany taldea eta Kataluniako L'Esbart San Marti taldearen emanaldiak ikusteko aukera

izango da igande honetan; Scalestrik lasterketan parte hartzeko aukera izango dute gaztetxoek hurrengo larunbatean, edota Zubietako zanpantzarrek jartzen duten giroa ikusteko parada izango da aurrean festetan.

Gaueko eskaintzari dagokionez, Ugaldere esanetan, «beti saiatu gara punta-puntako taldeak herrira ekartzeko». Aurretik, Reincidentes eta Nok-en txanda izango da rock kontzertuen artean. Eta, abeslarien artean, aurreko urteetan Oskorri edota Anje Duhalde etorri baziren, Ruper Ordorika izango da aurtengo gonbidatua.

Alkateak, festak «oso ongi» pasatzeko gonbitea luzatu die herritar guztiei.

EGITARAUA ▶

GAUR

19:30. Jaien hasiera: Herensugearen ateratzea, suzuria, alkatearen agurra. Ondoren kalejira egingo dute herritarrek buruhandiek eta

erraldoiekin eta Zubietako zanpantzarrekin.

21:00. Barrikotea San Migel plazan.

23:30. Dantzaldia Tapia eta Leturia trikitalari taldearekin San Migel plazan.

Sartu euskararen Xarean,
Irurako Udalak herritar guztiei eta kanpotik etorriko zaretenei jai zoriontsuak opa dizkizue.

ALDABA ▶ JAIK

Bihar, txupinazoa bota ondoren hasiko dira sanmigelak

Bihar, etzi eta asteazkenean, irailaren 29an, izango dira jaietako ekitaldiak; gauak trikitixa taldeek alaituko dituzte



Plater-hausketa lehiaketa herrikoa Aldabako jaietako usadiozko ekitaldia bihurtu da. D.GIBELALDE

OLAIA ESKITXABEL

Bihar hasiko dira Aldabako sanmigelak; hiru eguneko egitaraua prestatu dute; bihar, etzi eta asteazkenean, irailaren 29an, izango dira jaietako ekitaldiak.

Bihar, txupinazoa emango die hasiera jaietara; jarraian, egitaraua betiere lekua izaten duen Plater-hausketa ehiaketa herrikoari ekingo diete. Gauean, zahagi ardoa egingo dute pilotalekuan; bertan, eserlekuak eta ardoa eta sagardoa jarriko dituzte antolatzaileek; gainontzekoa norberaren esku geratzen dela azaldu dute. Afal ondorena alaitzeko txiste kontalariak gonbidatuko dituzte. Joanito Mendizabal eta Joxe

Ramon Aldasoro idiazabalderen esku geratuko da giroa berotzeko ardura.

Jai egunetan trikitixa entzuteko parada izango dute alda-barrek. Bihar, Laja eta Mikel, eta, etzi eta asteazkenean, irailaren 29an, Ainara eta Miren trikitilarien saioak izango dira entzungai.

Herritar guztientzat

Igandean, irailaren 26ean, askotariko ekitaldiak izango dira; goizean, eskualdeko pilotariak Aldabako pilotalekuan jokatu dute; bi partida izango dira. Alebinetan, Egiguren eta Otaegi bikoteak Urrretabizkaiaren eta Zelaiaren aurka jokatuko du eta kadeteen mailan, Gala-

rragaren eta Telletxearen eta Iburguren eta Alonsoren artekoa izango da neurketa. 12:00etan hasiko dira partidak.

Arratsaldean, Alegiako Dantzari Txiki taldekoen emanaldia izango da; pasa den asteburuan, Kalebeherako jaietan berotu ondoren, dantza erakusketa eskainiko dute Aldaban. Jarraian, jolasean aritzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Irailaren 29an, San Migel eguna izanik, herriko jaietako patroia, jai giroa izango da berriro ere Aldaban. Egun hori, auzokoak biltzeko eguna izan ohi da: «Auzoan bizi direnez gain inguruko herrietara bizitzera joandakoak ere bueltatzen diren eguna izaten da»

EGITARAUA ▶

Asteburuan, eta asteazkenean, irailaren 29an, izango dira Aldabako jaietako ekitaldiak:

BIHAR

16:00. Txupinazoa.
16:30. Plater hausketa txapelketa herrikoa.
21:00. Zahagi ardoa.
Ondoren. Mendizabal eta Aldasoro txiste kontalariak.
23:00. Erromeria, Laja eta Mikel trikitilariekin.

ETZI

11:00. Meza nagusia.
12:00. Pilota partidak.
17:30. Ainara eta Miren trikitilariak.
18:00. Alegiako dantzari txikien dantza erakusketa.
19:00. Haur jolasak.
23:00. Erromeria Ainara eta Mirenekin.

ASTEAZKENA (IRAILAREN 29)

11:00. Meza nagusia.
12:00. Hamaiketako herritarrentzat.
21:00. Afari herrikoa.
23:00. Erromeria Ainara eta Mirenekin.

LAGUNTZAILEAK ▶

Aldabako jaiak antolatzeko laguntza eman duten guztiei eskerrak eman dizkiete antolatzaileek:

Aldaba. Aldalur anaiak/Limusin ganaduak, Elizondo jatetxea, Intxur Ehiza Elkarte eta Panelfisa torlojugintza.

Alegia. Kutxa eta Landa okindegia.

Baliarrain. Anduitz erakuntzak.

Ibarrá. E. Uranga harakina.

Ikaztegieta. Aloña tailerra.

Iruñea. Electricidad industrial Iruña, S.L.

Tolosa. Udala, The Factory modak eta Iturri kafetegia.

Villabona. Benito Aldalur harategia eta Eizmendi armadenda.

adierazi dute antolatzaileek. Hamaiketako eta afari herrikoia, ohiturari jarraituz, Elizondo jatetxean egingo dituzte.

ALEGIA ▶

Usurbilen aurka jokatuko dute lurraldekakoek

Bihar, larunbata, jokatuko dituzte Intxurrekoek asteburuko partida guztiak. Jubenilek, Lasarten jokatuko dute Ostadar taldearen aurka; 12:30ean izango da partida. Infantilek eta lurraldekakoek etxean jokatuko dute. Goizean, 12:15ean hasiko da infantilen partida; Euskalduna-ko jokalariek izango dituzte aurrez-aurre. 17:30ean, lurraldekako taldeak Usurbilen aurka jokatuko du.

AMEZKETA ▶


Udal Egitamuketa Orokorren birrazterpena

Udal Egitamuketa Orokorren Birrazterpenari hasiera eman ondoren, aldaketa garrantzitsuak daudela eta, behin behineko onarpena eman aurretik, dagokion dokumentua berriro jendearean erakusgai jarzea erabaki du Udalak. Herenegun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen bezala, dokumentua datorren urriaren 23a bitarte egongo da erakusgai. Bitarte horretan, «herritarrek nahi dituzten iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte», Udalak jakinarazi duenez.

TOLOSA ▶

Bilbao izango da Hartsuagaren ordezkia

Hizkuntz Eskubideen Behatokia zuzendaria aldatu berri du Kontseiluak; Paul Bilbao, Behatokia kudeatzaileraren denak, hartu du Juan Inazio Hartsuga tolosarren lekua. Herenegun egin zuten Donostian zuzendari berriaren izendapena; ekitaldian, aldaketaren zergaitia azaldu zuen Xabier Mendigurenek, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari nagusiak: «kudeaketari buruzko irizpide desadostasunak zirela medio, aldaketa egitea erabaki da».



HITZAK zozketatutako *Leidor Zineman* astebukaera honetan 'Cuestion de pelotas' filma ikusteko bi sarreren irabazlea: **GURUTZ MENDILUZE GONZALO (TOLOSA)**

IBARRA ▶ KULTURA

Bertako produktuak eta ohiturak ezagutzeko azoka

Igande goizean egingo da Ibarako kaleetan 'Bertakoa, ezagutzekoa' azoka



Beko-Biden jarriko dituzte ikusmin gehien sortzen duten abereak ikusgai. HITZA

INIÑO TERRADILLOS

Bertako produktuek garrantzi berezia izango dute igande honetan, irailaren 26an, Ibaran egingo den azoka berezian.

Ibarako Hauspoa kultur elkarteak antolatzen du *Bertakoa, ezagutzekoa!* izenez ezagutzen den eta urtero egiten den azoka hau. Urte osoan zehar Hauspoak hainbat ekitaldi antolatzen ditu eta horietako bat igandeko azoka berezia da. Ibarako elkarte, talde, nahiz bertako herritarrez osatua dagoen elkarte honek herriak duen nortasuna eta izaera indartu, jendeari ezagutarazi eta

herriaren sena sustatzea du helburu.

Azokan ikusgai

Izenak dioen bezala, azoka honetan bertan egiten dena erakusten da. Alde batetik, Ibaran tradizionalki oinarritzekoak izan diren, eta oraindik ere oso garrantzitsuak diren nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza bezalako lanbideak eta hauekin erlazionatutako beste hainbat jarduerak eta ohitura ezagutarazi eta bultzatzen ditu.

Igande goizean artelanak, abereak, barazkiak, garai bateko lanabesak, loreak eta abar

luzea ikusi ahal izango da azokan.

Abereak izan ohi dira, hala ere, ikusmin handiena sortzen dutenak, eta aurten ere denetik izango da. Behiak, txekorrak, bigak eta zezanak, behorrek eta zaldiak, astoak eta ardiak eta bi motatako ahuntzak eta akerrak, ipotxak eta handiak topatu ahal izango dira Beko-Biden.

Txikientzat ere

Txikienean ere izango dute gozua igandean, beraientzat jarduerak bereziak prestatu baitituzte. Hain zuzen ere, taldea

nola egiten den ikasi ahal izango dute 11:00etatik aurrera izango den talo tailerrean.

Honetaz gain, igande goizoan zehar Euskal Herria edo Beko-Bidera gerturatzeko direnek era guztiak jarduerekin goiz polita pasatzeko aukera izango dute. Batetik, Tolosaldeko VII. Ezti Txapelketa egingo da, dastatu ere egin ahal delarik. Ondoren, Ibarako baseritarrek behia nola etzan arazten duten erakutsiko dute eta jende asko erakartzen duen aizkora apostua ere izango da, bi ibartar izango direlarik aurrez aurre.

Bertako tradizioak eta ohiturak ezagutu, abereak, eskulanak, artelanak, barazkiak, loreak eta beste hainbat arlo desberdinetako produktuak ikusiz gozatu eta jan eta edan ahal dute azokara joaten direnek, guztien eskura taloa eta sagardoa izango baita igande goizean *Bertakoa, ezagutzekoa!* azoka berezi honetan, 10:00etatik 14:00etara.

BELAUNTZA ▶

Esku pilota ikastaroa haur eta gazteentzat

Belauntzako Udalak haur eta gazteentzat esku pilota ikastaroa antolatzeko asmoa du. Ikastaro hau, larunbat goizean izango litzateke 10:30etik aurrera Belauntzako frontoian. Interesatuak Kultur Etxean eman beharko dute izena 17:30etik 20:00etara, honetarako azken eguna irailaren 28a izango delarik.

IBARRA ▶

Etxean jokatu du Ibarak Tomas Mingot-en aurka

Bihar ligako hirugarren partida jokatu du Ibarra areto futbol taldeak. Etxean, Bela-bieta kiroldegian 18:30ean izango da ordua eta Tomas Mingot logroñoarrak izango ditu aurrez aurre. Lehenengo bi partidetan talde indartsuen aurka neurtzea egokitu baldin bazaie, kasu honetan talde apalago baten bisita izango dute. Logroñoarrak, hala ere, jokatu dituzten bi partidetatik bat irabazi dute, Ibarako taldeak baino hasiera hobea izan dutelarik.

LEABURU ▶

Jubilatuen Eguna iznago dute igandean

Igande honetan, irailaren 26an, Leaburu-Txaraman Jubilatuen Eguna egingo dute. Urtero egiten duten egun hau egitarau berezi batekin osatuko da: 12:00etan meza izango da Leaburuko San Pedro eliza eta ondoren dantza saioa herriko dantzarien eskutik. 14:00etan bazkaria egingo dute Leaburuko Zazpibide elkartearen eta bazkari ostan alaitasuna trikitilariak emango diote egunari.

EGITARAUA ▶

Datorren igandean, irailaren 26an, 10:00etatik 14:00etara izango da bertakoa ezagutzeko aukera Ibarako kaleetan zehar, hainbat ekitaldi antolatu dituelarik Hauspoa elkarteak:

- 11:00. Haurrentzako talo tailerra.
- 12:00. Ezti ateratzea.
- 12:30. Tolosaldeko VII. Ezti Txapelketa.
- 12:45. Behia etzan araztea.
- 13:00. Aizkora apostua Unai Otaño (*Orita*) eta Jexux Mari Mujika ibartarren artean.

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

eztabaidako galdera:

zer iruditzen zaizu Mugikortasun Iraunkorraren Astea bezalako ekimenak

ONDO ▶ GAIZKI ▶ LAGUNTZEN DUTE ▶ ALFERRIKAKOAK DIRA



LEITZA ▶ KULTURA

Eskulanetan trebatu nahiz gero, hainbat ikastaro hastear dira

Negua ate joka heldu dela eta, ikasle jendeak ez ezik gainerakoentzat ere ikasteko aukera desberdinak badira



Eho-ziri lanak, koadroak, ohe-gainekoak... Denak erakusgai. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Udako aisialdi luzea bukatu da eta indarrak berreskuratu eta lanerako gogoak berpiztuta ditugula, banako bakoitza bere eginbeharretara itzultzen da. Baina lanetik aparte gelditzen den denbora apurra, bestelako lanetan aritzeko baliatzen da eta lanerako aproposak izan litezkeen ikastaro akademikoz gain, bakoitzaren afizio edota gustuko dituen gaiak lantzeko aukera ere izaten da gehienez, baita Leitzan ere.

Hrtzak berak informatikako ikastaroei buruzko informazioa eskaini zuen moduan, kasu honetan eskulanetako ikastaroen berri iritsi zaigu.

Alde batetik, pintura eta marrazketa ikastaroa urrian hasi-

ko dela iragarri dute, egun zehatza heleraziko dela jakinaraziz. Bukatu, berriz, eskolako ikastaroarekin batera bukatuko da, hurrengo urteko maiatza-ekainean. Bi sailetan banatuta ariko dira helduak eta umeak, astelehenetan batzuk eta asteazkenetan besteak, hurrenez hurren, haurtzaindegia dagoen eraikineko gela batean. Ordutegia, bi taldeentzat, ber-bera dela adierazi dute, hots 15:30etik 20:00ak arterainokoa. Ikasleek hainbestekoak erabiltzen dituzten materialen erosketarako, eta beste.

Jakin, izena emateko eperik ez dagoela, «nahikoa da, pintura ematen dugun gelara azal-tzea, egunean bertan eta ho-

rrekin iada lanean hasiko ginateke», zioen Pili Aramendik, ikastaroaren arduradunak. Pintura eta marrazketa ikastaro honetan, ikasle bakoitzak gustuko dituen teknikak lantzen ditu: marrazketa, akuarela, oleoa... Bakoitzak bere etorriari ematen dio aukera.

Eho ziriekin kiski-kaska

Eta margotzeko lientzoetatik, ehunetara igaroz, ehoziri ikastaroa ere hastekoa dela eman da jakitera. Hau urriaren 5ean hasiko da, abenduaren 21a arte, biak barne. Liño Putzu Eho-ziri Lanzaleen Elkartek adierazi duenez, asteartetan bilduko dira, haurtzaindegiko eraikinean bertan erabiltzen duten gelan, 15:30etik 18:00ak arte. Izena emateko garaian, asteartero bildu ohi direnez, kasu honetan ere, nahikoa omen da bere hartara joatea. Hileko 25 euro ordaindu behar omen dira.

Bestalde, jubilatuek beren aldetik ere modu askotako eskulanak egiten dituzte eta hauek hasiak dira lanean, bat besteari erakutsiz: gantxi-
loa, gurutze-puntua, bordatuak, bainiak...

Kontuak kontu, neguan egin dako lan hauek guztiak, gero, gustura ikusten dira Kultur Astekeo erakusketan. Baina egin egin behar dira aurrena!

LEITZA ▶ KIROLA

Iparragirrek Altsasuko festen inguruan jokatu ohi den torneooa irabazi du

Mundiñano aurrelaria kideztat izanik, txapela jantzi du bikoteak

J. ASTIBIA

Iñaki Iparragirre pilotari leitzar-
rrak, Otadiako Santo Kristo Torneoa irabazi zuen igandean, Mundiñano aurrelariarekin batera. Hari eta Baezek osatutako bikotearen aurka jokatu

zuten eta, 22 eta 13ko azken emaitzarekin, txapela eskuratzeko lortu.

Emaitzean alde handia gelditu bazen ere bukaeran, hasiera gogorra izan omen zuen partidua, berdinketa askorekin eta jokalarien arteko erabateko

norgehiagokarekin. Baina azkenik bikote nafarra gailenduz, nabarmen, hirurogeita bost minutuz jokatu.

Altsasan, herriko festen barnean, jokatzen da torneo hau eta igandean jokatu zen afizionatu mailako finala, ere.

LEITZA ▶ KIROLA



Aurrera KE-ko jokalariek ligako aurreneko partiduan. J. ASTIBIA

Bihar dute partidua Aurrerako jokalariek

Altsasu KEaren aurka jokatu behar du; ligan kanpoan jokatu duen aurrenekoa

J. ASTIBIA

Bihar, larunbata, Altsasura jokatuko dira Aurrera KEko futbolariak, Altsasu KE futbol taldearen aurka jokatzera. Ligako bigarren jardunaldia izanen da asteburu honetako, eta lehendabiziko itzulian, kanpoan jokatu duen aurreneko partidua.

Aste honetan zehar Martin Salazarren esanetara aritu dira ohiko entrenamenduak egiten jokalariek eta besteren zelaian jokatzeko hainbat aholku jaso dituzte. Partidurako jokalarien zerrenda, berriz, azken momentura arte ez da ezagutzera emanen, «beste taldeari abantailarik ez diogu eman behar eta», adierazi zuten prestatzaileek.

Lehenengo asteburuko jardunaldian Beti Kozkor KEaren aurka jokatu zuten leitzarrek eta banako berdinketa izan zen partidua hartan eskuratu zuten emaitza. Oraingoan Burunda aldera joan beharko dute indarrak neurtzera.

Eta joan ere, autoz joanen dira, kanpoan jokatzen duten aldiro bezala. «Taldea Goren Mailan zegoenean, autobusa hartzeko diru laguntza izaten zen federaziotik eta. Baina orain, maila honetan, ez da horrelakorik izaten eta moldatu egin behar izaten dugun», argitu zuten, «ahalik eta kotxe ko-



Jokalariek partidua aurreko beroketarako egiten. J. ASTIBIA

puru gutxiena hartu eta itzulerakoan, atxonena dagoenak gidatuz», erantsiz.

Nondik norakoak

Denboraldi honetan Aurrera KE futbol taldea, Lurraldeko Lehenengo Mailan jokatzen ari da, lehendabiziko taldean. Lau daude. Kasu honetan 13 talde lehiatuko dira, apirila arte, bi itzuli eginez eta gero, talde bakoitzean buru gelditzen diren artean, igorako ligaska jokatu dute.

Horixe dute helburu, bada, mutil bizkor hauek eta zale-tuen bulkadarekin, lanerako gogoz daude.

iragarki laburrak ▶



Leitza. Donostiako unibertsitatea 34 km-tara, Iruñeko unibertsitatea 45 km-tara. Ongi komunikatuta dagoen eta etorkizuna duen herri lasaia. Inmobiliariarekin zerikusia duen informazioa nahi baduzue, deitu zenbaki honetara 948 51 05 34.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko irailaren 24a, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albitur, Alegia, Alkiza, Alzo,
Amezketta, Anoeta, Balerano, Berasteg, Edoain, Hernialde,
Ibarri, Inza, Lamiol, Leizabara, Lizartza, Orendain, Orens,
Tolosa, Villabona, Zuzkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritza.
Kultura Saila



GAURKO
EGURALDIA



21

15

BIHARKO
EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Adinekoen irteera Bizkaiko kostara 09:15ean. Lekeition lehenengo geldialdia, Busturian bazkaria eta arratsaldea Zumaietan.
Tolosaldea. *Euskal presoan Euskal Herrira* lelopean, hileroko ostiraletako kontzentrazioak izango dira: Adunan, Amezketan, Anoetan, Asteasun, Ikaztegietan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilen 20:00etan, eta Alegian, Ibarra eta Tolosan 19:30ean. Ohiko tokietan, Etxerat elkartek antolatuta.

Villabona. Ramon Garateren hitzaldia eta karta jokoetako finalak. Biltoki egoitzan.

IKUSKIZUNAK

Tolosa. Kubako ballet nazionalaK dantza klasikoko emanaldia eskainiko du, Leidor aretoan, 20:00etan.
Tolosa. Naive taldearen kontzertua. 23:30ean, Fronton kafetegian.

KIROLAK

Futbola. Bihar.
▶ Tolosa-Lagun Onak (Jubenilen

Euskal Liga. Berazubi. 17:00).
▶ San Ignacio-Tolosa (Kadeteen Euskal Liga. Adurtza, 11:45).
▶ Touring-Tolosa CF (Goren maila. Fanderia, 17:00).
▶ Intxurre-Ursubil (Lurreldeko 2. maila. Elorri, 17:30).
▶ Danena-Amaroz (Lurreldeko 2. maila. Elbarrena, 16:30).
▶ Ostadar-Intxurre (Jubenilen 1. maila. Mitxelín, 12:00).
▶ Oiartzun-Billabona (Jubenilen 1. maila. Ugaldetxo, 15:30).
▶ Ursubil-Tolosa CF (Jubenilen 2. maila. Harane, 16:00).
▶ Billabona-Aretxabaleta

(Kadeteen 1. maila. Arratzain, 16:30).
▶ Tolosa B-Ostadar (Kadeteen 2. maila. Elorri, 10:30).
▶ Internacional-Amaroz (Kadeteen 2. maila. Matigoxotegi, 09:00).
▶ Tolosa CF-Urnieta (Nesken Liga. Elorri, 15:30).
Futbola. Etzi.
▶ Tolosa B-Mundarra (Lurreldeko 2. maila. Berazubi. 16:30).
Areto futbola. Bihar
▶ Ibarra-Tomas Mingot (1. Maila A. Belabieta, 18:30).
▶ Arturo Eyries-Hegoalde (Ohorezko m., Valladolid 17:00)

Futbol 7. Etzi

▶ Ibarra Gazte Asanblada-Knauf Dec.Nuñez (1. Maila A, Beasain 1, 09:30)
▶ Irish Guinn.-Lanbroa Dickens (1. Maila A, Beasain 2, 09:30)
Saskibaloia. Bihar
▶ STL Gaztelu-Aralar Kirolak (Gizonezkoen senior maila. Benta Berri, 16:00).
▶ Gros Xake-Tolosa (Gizonezkoen junior maila. Bidebieta, 18:00).

ZINEMA

Tolosa. *Cuestion de pelotas.* 22:30ean, Leidor zinemari.

ZORION AGURRAK ▶

HITZA,
zorian agurren
tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!



URTE ASKOAN
Haritz Mujika Lasa (Asteasu).
Zorionak pobolo! Gaur 9 urte.
Muxu handi bat. Etxekoak.



URTE ASKOAN
Jone Puras (Anoeta). Gaur 8
urte. Aita, ama eta Maialenen
partetik. Muxu handi bat.



URTE ASKOAN
Maikel eta Ainhoa (Villabona).
Gaur 21 eta 17 urte.
Zorionak gurasoen eta Ibarra familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Garikoitz Zeberio Alonso.
Atzo 4 urte. Zorionak Ibarra eta
Leitzako familiaren partetik.



Ez GAUDE JENOK

Maita zaitugu!

... usaien yeh, yeh, yeh!!
Gogoratzen??

ZORIONAK
Hurrengo irteeran gurekin izan zaituzten borrokatuko dugu!
Muxu handi bat! Jo ta ke! Ibarra Gazte Asanblada.



ZORIONAK
Sasiari darion masusta emankorriari eskerrak eta urte askotarako.
Ibarra Herri Ekimena.



ZORIONAK
Horrelako iluntzeak elkarrekin pasatuko ditugulakoan... Animo ta segi aurrera!
Gora Euskal Herri gorria! Zure koadrila.